

Euskadi Plazako aparkaleku zerbitzua

Sartzeko eskakizunak

Ibilgailua aparkatzeko jarraitu beharreko protokoloa

Ibilgailua ateratzeko jarraitu beharreko protokoloa

AURKEZPENA

Dokumentu honek Euskadi plazako aparkalekura sartzeko protokoloa eta hura erabiltzeko ezarritako murrizketak deskribatzen ditu.

Euskadi Plazako aparkaleku zerbitzuak aukera ematen dio Deustuko Unibertsitateko elkarteari aparkaleku horretan ibilgailua aparkatzeko, campuseko aparkalekua beteta egonez gero. Egonaldiaren prezioa (24 orduko mugarekin) 5,95 eurokoa da (BEZ barne, 2025eko martxoan indarrean dagoena).

Deustun matrikula indarrean duten ikasleek eta unibertsitateko langileek erabili ahal izango dute zerbitzu hau.

Aparkalekuan sartzeko beharrezkoa da **“P-app”** aplikazioan erregistratzea, eta behin nortasuna egiaztatuta, kreditu-txartel bat eta zure ibilgailuaren matrikula eranstea. “Deustuko Unibertsitatea” aukeratzen da elkartutako erakunde gisa eta zure kontu instituzionalarekin identifikatzen zara. Behin hori eginda, zure kontua egiaztatuta eta erabiltzeko prest dagoela baieztatzeko mezu bat jasoko duzu.

24 orduz egon daiteke gehienez ibilgailua aparkatuta. Une horretatik aurrera, egonaldi osorako tarifa estandarra aplikatuko da.

Nahitaezkoa da ibilgailua **-4** solairuan aparkatzea.

-
1. Erakunde elkartuaren aparkalekura sartu ahal izateko, joan aparkalekuaren sarrerara ibilgailuarekin eta langa irekiko da matrikula irakurritakoan.
 2. Egiten diren mugimenduen berri emateko eskatu badiozu aplikazioari, Push jakinarazpen bat jasoko duzu telefonoan, sarreraren berri emateko.
 3. Gerta daitekeen akatsetako bat matrikula irakurtzea izan daiteke. Halakoetan, ordezkotako metodoa erabil dezakezu eta QR kodearekin identifikatu.
 4. Eraman ibilgailua **-4 solairura**. Horretarako, -2 solairuan, -3ra jaisten den arrapalara heldu aurretik, irakurtzeko zutoin bat duen hesi bat dago, eta hortik identifikatu beharko duzu berriro zeure burua.
 5. Jarraitu **-4** solairuraino eta aparkatu ibilgailua **inguruko egoiliarrentzat erreserbatuta ez dagoen** edozein plazatan.

Ibilgailua ateratzeko ondorengo pausuak jarraitu behar dituzu:

1. Joan **-4** solairura ibilgailua ateratzeko
2. Kanporako irteera-hesira iristean (**-2** solairuan dago), langa automatikoki irekiko da matrikula ezagutzean.

